

Gizarteko auzia

Betiko auzia

Gizonak gizon direan artean ez dira alkarregaz auzi, eztabaida eta asarre barik egongo. Gure barruan daroagu auzi orren azia eta sustraia: egoismoa, gure burua bear baiño geiago maite izatea: «ni ta nireak ondo ibilli gaitezala, beste guztiak ondatuko badira be», esango dan bere burua ezi barik daukon gizonak.

Egongo dira gauza oneik sermolarien gauzak direala esango dabenak be; jakiña da, gaurko gizonak ez dira lenagokoak lakoak-eta; areik bai, areik dana siñistuten eben, ezer ezekielako; baiña gaurkoak, ai gaurkoak, ilustrauak dira gero! Olan diño e askok, eta diñoena egia dala usteko dabe. Baiña gu lengo esanetan gagoz; eta barriro esango dogu, oraingo gizonen artean, erri aurreratu, zibilizatuetan len baiño gizon kirten eta basati ta abere antzeko geiago agiri dala. Zergaitik ete da?

Atzeraka doazanak

Begiratu zergaitik. Gizon izango dan gi-

zonak bere Egille ta Jaunagandik ikasi bear dau gizon izaten, gizonari jagokon eran aziten, biziten eta ibilten. Gure Egille eta Jaun ori gizon egin jakun, eta gizonen artean ibilli zan guri bear alakoak izaten erakutsiaz. Baiña oraingo gizonak Jaun orregaz aitzu egin dira; eta aurreraka Jaungoikoaren bideetan joan bearrean, Kristoren antzera bizi bearrean, atzeraka dabiz Jaungoikoagandik igesi; eta atzeraka ta atzeraka, abereen antza artzen ari dira. Kristok ederto erakutsi euskun gure burua eziten, gure buruan geiegizko maitasuna itoten, alkar maitatzen. Ona Kristoren lege aundia: «Maite izan egizue alkar, nik maite izan zaituedazan legez». Baiña aitzu egin dabe erriak Kristoren legea, eta ara auziak, errieta gogorrak, alkar ikusi-eziñak...

Gizarteko auzia

Mundu onetan zerura bidean gagozala ondo buruan sartzen ez dogun bitartean erabagiko ez dogun auzia emen: Gizarteko auzia. Kristoren jarraitzailleak ez gareanon auzia. Eta egitan beste auzi eta eztabaida

guztiak ez dira ezer gizarteko auzia deritxagun auzi onen ondoan. Ikusi daigun apurtxu bat.

Gizartea bi zatitan zatitu geinke: aberastena eta beartsuena; langilleena eta nagusia; dirudunena eta dirubakoena. Eta bi zati onen artean ikaragarritzko asarrea sortu da.

Langilleak diño nagusia langillearen izerdiaz gizentzen dala, langillearen odolari zurrut egiten ari dala. Dirubakoak gauza guztiak buruz bera ipiñi gurea dauko, alan zeozeren jabe egingo dalakoan.

Nagusiak, barriz, esango dau, oraingo langilleak ez dabela irabazten dauan aña lanik egiten, nagusia ezin-ikusia besterik ez daukala. Dirudunak diru geiago atara gura.

Aberastasuak ez dagozala ondo banatuak, gitxiren eskuan dagoala dana eta munduaren lautik iru zatiak gosez bizi direala. Mai batetik askok artu bear eta bakotxak parterik aundiena eta gozoena beretzat gura, eta... Nok eroango aundiena? Jaungoikoaren legea aitzuta badabiz indarririk aundiena daukien basapiztiak, beste danak gosarik ilgo badira be.

Ona emen gizarteko auzia.

Aita Santuen erakutsiak

Ez da au diru-auzia bakarrik, ekonomia-auzia bakarrik; arimako auzia bere bada. Dirua eta munduko aberastasuak beste era batera banatuak balegoz... Baiña ez, ez da ori. Auzi au gizonak gizonakaz daukien auzia da; eta gizona ez da gorputza bakarrik. Gorputz barruan badauko arimea be, eta gorputzari gosea kendu arren arimeari kendu ez bajako, ez dogu ezer aurreratu. Gorputza ustez ondo ibilli arren, arimea zuzen ez badabil, txarto dabil gizona eta txarto ibilliko dira gizonak. Orregaitik auzi au ez dabe diru eta munduaren ardurea daukienak bakarrik erabagiko. Arimak zain-

du eta zuzendu bear dabezanak be auzi onen erabagitzaille izan bear dabe.

Erakutsi mamitsu eta arrigarriz beterik dagoz Erromako Aita Santuak gai au dala-ta emon dabezan zuzenbideak. Onetan ezagunena Aita Santu Leon XIII'garrenaren «Rerum novarum» karteak dogu. Argi ta garbi diño zertan dagoan, zelan erabagi ezin leikean eta zelan erabagi bear dan gizarteko-auzia, langille eta nagusien arteko asarrea. Auzi au nundik datorren eta noraiño eldu dan agertu ondoren, Sozialisten esanak ez direala gauza, diño Aita Santuak, auzia bear dan moduan erabagiteko. Jaungoikoa eta gizonaren arimea alde batera itxita, ondasunen Jabeari bere gauzen jabetasuna ukatuta, gizarteko-auzia korapilloz bete besterik ez dala egiten. Guzurrak eta bidebagekeriak ezin daikeela argi onik eta zuzenbiderik ekarri. Eta guzurrean eta bideokerrean dagozala Sozialisten erakutsiak.

Egi au agertu ondoren Elizearen agindu eta erakutsietara biurtu bear direala begiak, diño, auzia bear dan legez erabagiteko. Ederto egongo litzake erakutsi onek dan-danak gogoratzoa, baiña luzeegi ez izatearren, labur labur esango dogu Aita Santu aundi onek bere enziklikearen zati onetan diñoana.

Elizearen legetegian

Elizeak badauko bere Legetegia, bert lege liburua, «Codex iuris canonici» deritxana; Liburu onetan ederto baturik aurkitzen doguz Aita Santuak emondako erakutsiak.

Begiratu eta irakurri (Can. 1524): «Guztiak, eta, batez bere eleiz-gizonak, erlijiosak eta eleiz-ondasun-zaintzailleak, lan eragiten deusien langilleari lan-sari egoki eta bidezkoa emon bear deusie; bear dan garaian Jainkozaletasunari jagokozan arimetan lanetarako asti naikoa langilleak izan daiten arduratsu izan; ez galerazo etzeko egiñ

berrak betetzen, ez-eta gerorako zeozer aurreratzen bere; ez-eta bearrik emon iñori zarra edo gaztea, gizona edo emakumea dala begiratu barik».

Langilleentzat

1) Lan-sari egokia eta bidezkoa, justizia bete daiten; baktotxak berari jagokona baiño ez daiala gura izan.

2) Arima lanetan, Jaungoikoaganako maitasunari jagokozan zeregiñetan, bear dan garaian, naikoa astia artuaz, jardun bedi langillea.

3) Etxeko eginberrak, guraso danak gurasoarenak, seme-alabak seme-alabenak, ondo bete.

4) Gerorako zer-edo-zer aurreratu.

Au da: langilleak izan beitez benetan langille, Jaungoikozale, etxezale, zintzo. Ez izan «dagoanean bon bon, ez dagoanean egon» esaten dabenaren antzekoak.

Nagusi eta ugazabentzat

1) Ez emon langilleari egoki eta bidezko dan baiño gitxiago. Ez, gitxiago emonda ixillik gelditzen dala ikusten bada be.

2) Lan-saria langilleari bere egin bear guztiak betetzea galerazoko ez deutson aiñakoa izan bedi.

3) Ez iñori bere indarren neurritik gorako lanik emon, ez umeari aundiarenik,


ez emakumeari emakumetasunari ez jagokonik, ez gizonari emon bear etxakonik.

Ugazabak, ba, bere langilleak ezagutu egin bear ditu; jakin bear dau bere egin-berrak betetzeko aiña artzen dauan ala ez; langilleak asko direala-ta ezin badau berez egin, tajutu bedi zelan-edo alan bere bete-bear oneik betetzeko.

Azkenez

Aita Santuak onen ondoren langilleak Sindikatoetan batzeko daukien eskubidea ondo ikusten dau; baiña, diño, ez dagiela iñoiz lotsarik izan katolikoak direala agertzeko. Ez goaz orain azken arau oneik erabagitzen, bakarrrik berbatxo bi: Langilleak bear aiña irabazi arren geiegizko dituan ganzetan galtzen baditu, alperrik orroa egin; eta ugazabak, mundu erdia gosez iltzen dagoan bitartean, erruz aberastuten doazen bitartean, alperrik esan kristiñauak direala. Ori ez da Kristiñau izatea; orixe da benetan: «ni ta nireak ondo ibilli gaitzala, beste guztiak ondatuko badire be». Kristiñauk danok bat gara, danok famili bat osotzen dogu eta asko daukonak ez daukonari emotea obligaziñoa da eta ez beste ezer. Kristiñau dotriña barruan sartu, Kristoganako maitasunez bete, eta alkarren arteko laguntasuna eta maitasuna gogoan ez doguzan bitartean ez uste izan «H» bonbakaz gizarzte-azua erabagiko danik. Ziur egon.

Piarres



¡¡A zan ezkondu gurea!!

“Gizona auzuan alargundu?
nok era ori galdu?”

Ezkongei zagozien emakumetxuok, adi eta arreta onez, irakurri egizue gaur emen ipinten dodan ipuintxua. Egi-egia da, eta ementxe jaso...

Berrogei urte barik geratu zan alargun Atxirika jostuna.

Ona, maratza, iñurritxu bat baizen langillea eta eleizkorra, iñoiz albako mezatarata utsik egiten ezebana zan bere emazte Mari-Jesus, baña Jaungoikuak, oso gazterik, Beraganatu eutsan, eta gero neure aitita izango zana, bere amar eta zortzi urteko alabatxu biakin, bakarrik geratu zan...

Etzan gizon andi, morrosko-mardoa txikitxua eta erdi-ezereza baño, baña langillea zan, famili maitalea eta... Erdiko-kalian jostundegi, sastreri, ondo ornidu eta ezagun bat eukana...

Baña goazen arira:

Alargun barria atsekabez, illun eta pentsakor, guztia baltzez ondo jantzita, senide eta adiskidez inguraturik, Mari-Jesus zana-
ren entieru eta bere arimearen aldeko eleizkizunetatik etxeratu zanian, etxe-atadian bertan, eskillaran gora asi orduko, aurreratu jakan emakume auzokide bat eta bat-batera, esan eutsan:

—¡Tomas!.. Zuretzako errekadutxu bat, ba'dakart ba nik...

—¡Josus! Isturako eta gora eldu arte beru itxaron ezin leiken, bear-bearrezko enkarguren bat da, ala..?

—¡Bai!.. Gora ezkerro, bear bada, besteren batek aurea artu legiket-eta...

—Olan bada, esan egidazu ba... Neu bere arduratan jarri nozu-ta...

—Ba... Zuk badakizu JULI Barrenkaleko nor dan: oraindiño ogetamabost urte beru eztituzana; emakume ondo eretxi eta begikua, bera bizi dan etxearen janbea eta dirutan eta bai Estaduko papeletan bere, politu dankana...

—Bai, da'dakit nor dan... Baña nora zoaz zeure ponderaziño eta gorakada orrekim?..

—Ara ba, arexek bialdu nau... zuri esateko... zeuk nai ba'zenduke... zugaz pozik ezkonduko litzakeala... ¿Zer diraustazu?..

—Aor dago ba, erantzun eutsan Tomas ek, berandutxu zabiltzaze...

—¡Eb..! Berandu diñozu?..

—Bai, egia da, berandu... Bart arratsian, Goyenkaleko Joxepatxu gaubela'ra etorri zanian... ber-berak, ezkontzeko eskari berorixe egin eustan...

—¡Jo... sus milla bider!.. ¡Olakorik!.. Da zeuk zer erantzun zeuntsan ba..?

—|Zer erantzungo neutsan ba?..
 ||EZETZ!! Nik Jaungoikuaren laguntasu-
 nagaz batera, neure alabatxu biyakin, etxe-
 ra ama barririk ekarri barik, biziteko asmua
 dankadala... Da zeuk bere, Barrenkaleko
 Jul'iri, neure eskerrak emonaz, orixe eran-
 tzun zeinkio...

||Andra barrabanok etxauek ezkontze-
 ko gar, gurari eta priesa gitxi!!

Eta ipuintxu au amaituteko ondo etorri-

ko jakuz emen, eztakit nok eta noiz asmau-
 riko bertso zar polit bi oneik:

Neska zar batek zeukan
 Nere desiyua
 Ezkontzeko egin dit
 Ark pretensiyua
 Gayan egon banintz
 Zer okasiyua
 ||Aguratuta ere
 estimaziyua!!

B E L U (Gernika)



BERTSO ZARRAK

Desprezio bat egin
 Diraten meriyo
 Bi bertsolari gabiltz
 Oso seriyo
 Len lagunak giñanak
 Orain kontrariyo
 Egitan ari danai
 Luzituko diyo
 Onrrai amoriyo
 Gora nai det iyo
 Gero ta egokiyo
 Ortan izan piyo
 Bestela arrazoyak
 Eztu baliyo

Zuzen eraman nai det
 Asi dan ariya
 Txirrita badaukazu
 Orren premiya
 Andriak einda jaten
 Derala ogiya
 Gaizto ta inbustero
 Gezur kontariya
 Zure memoriya
 Ezta ugariya
 Talentu eriya
 Gorputza nagiya
 Errespeto gutxiko
 bertsolariya.

Ni sano asko nitzan
 San Tomas bezperan
 Zurekin kantatzeko
 Deran euskeran
 Ordun e ez nun egin
 Zuk aindat jan da eran
 Gertatzen nitzalako
 Alako tankeran
 Zuk jarri paperan
 Gezurrak aukeran
 Arrazoirik deran
 Etzaude ezagueran
 Danak dakite nola
 Portatu zeran.



Zenbateraiño naizen
Nai dezu probatu
Menderatu nai baiña
Ezin logratu
Zuk gaizki egin eta
Nik nola barkatu
Urrenguan gizona
Obeto tratatu
Eztizut faltatu
Ain gutxi markatu
Etziñan portatu
Esanak ukatu
Nik orduko jornala
Nai det kobratu.

Ondo errepasatu det
Nik zure dotriña
Neretzat billatu det
Oso zikiña
Badaukat motibua
Sentitzeko diña
Oraindik jua etzaizu
Gaztetako griña
Zaude utsegiña
Gaizki itzegiña
Txarrakin jakiña
Ai buru ariña
Zu ari zera jaten.
Bestek egiña.

Fameliyan sartzia
Ai zeñen gaizkian
Ze ikusiya daukazu
Nere emaztian
Arro zere burua
Lasai ikustian
Bestela ibilli biar
Zenduna eskian
Bata ta bestian
Jai eta astian
Estadu tristian
Nik nere ustian
Nunai azalduko naiz
Zu aimbastian.

Arrazoi ederrikan
Nago ni entzuna
Bire txarretan jua
Biar etzuna
Ori da onrabidia
Jarri dirazuna
Sekulan e lotsikan
Izan eztezuna
Deran ontasuna
Galdu nai nazuna
Ai zer naitasuna
Zuk dadukazuna
Nere andriakin al dezu
Eginkizuna.

Galduta ibiliya
Naizela bertsuak
Errenteriyen saldu
Nitun batzuak
Gertatu egin litezke
Alako kasuak
Zuk jarritako oyek
Eztaude gozuak
Oso penosuak
Badaki auzuak
Daukazkit jasuak
Gezurti osuak
Nai dana esan libre
Kristuu falsuak.

Nere gisa zu ere
Tabernan sartuta
Ikusi izan zaituzte
Txit zabartuta
Patrikaran dituzun
Diruak galduta
Maldiziyoka gogor
Ezin billatuta
Iya eroruta
Tximak arrotuta
Ezin burututa
Kopetai elduta
Far eiten det askotan
Gogoratuta.

Etzerako ezterala
Izaten presarik
Orri ez gustatzen nunbait
Ardo gozorik
Nik basoka bezela
litroak osorik
Gero ezin emanikan
Aurrera pausorik
Ezta bersolairik
oi bezin lasairik
Etxian sikerik
Ein gabe kasorik
Zuk bezela eztet pasa
Aste osorik.

Itzak legunak eta
Biyotza bestera
Gu orren mingañian
Ezer ezkerera
Iya nola ibiliya
Ote dagon bera
Sapartuta erorita
Espalda atera
Orren ezaguera
Juna dago bera
Ez etorri onera
Lotsak ematera
Zu baiño zintzoguak
izandu gera.

Uste al dezu nagola
Arrazoi gabia
Itzak emanda nazu
Gaizki lagia
Ikusi ezpanizu
Neretzat obia
Ori ondo dakiten
Gizonak badia
Ukatzen trebia
Ai Fermin ordia
Naiz izan pobria
Da gizon noblia
Zu berriz alper danen
Diretoria.

Motibo gabe ez naiz
Lan ontan asiya
Nun dezu orduko nere
Irabaziya
Argatik eman dizu
Fermiñek auziya
Lotsa gabe esatia
Dezu mereziya
Zuk dezu guziya
Ezin ikusiya
Eta maleziya
Danen nagusiya
Ajolarik etzaizun
Gaizki eziya.

Nola peonzan eta
Alatsu arkitzan
Lanian gogotsua
Etzera izan
Beti sarpa zarrakin
Ijitan gisan
Dakitenak baira ni
Gaztetan zer nitzan
Nai badute esan
Lana egin noblezan
Naiz bizi pobrezan
Erremeyoik etzan
Sayatuta galanki
Irabazten zan.

Parte emango eztezula
Ai juezetara
Arrazoyik baldezu
Zuk ezertara
Nai dezunian biyok
Juango gera ara
Orrekin eztirazu
Sartuko ikara
Kararikan kara
Ondo errepara
Zure kantetara
Nolaituzun para
Aber erortzen zeran
Arrazoitara.

BERTSO BERRIAK

Andra Mariak allegatuta
Izandu giñan Gernikan
Arratsaldian Ondarru aldian
Kantatu zan bertsorikan
Arrienian ikusi nuen
Alberdi ezarririkan
Oso dotore zeguan eta
Bota nion ziririkan.

Jentia gendun bildu plazara
Ortarako da altaboza
Bertso ederrik ezin liteke
Entzun gaberikan goza
Izarzabal-ek ta Mugartegi-k
Egin zuten beren otsa
Jose Alberdi-k ta Ormaetxe-k
Eragin ziguten poza.

Bertsolarien gradurik ez tet
Nago aiek baiño berago
Beste gauzetan askok bada ki
Oso altuan ez nago
Ala ta ere aien agotik
Bertsua entzun naiago
Gauza ederrik munduan bada
Zer dan ikasi lenago.

Bazkaldutzera joan giñaden
Morduan danak batera
Mai gaiñ aretan etzan ageri
Iñon utzikan platera
Goiz asi giñan eta ordua
Zijoakigun aurrera
Toki egiteko bota ginduzten
Kafe gaberik kalera.

Berotu giñan ori entzunda
Egin genduan protesta
Esan ziguten egun aretan
Gernikan zutela festa
Baiña bestetan sekula ere
Iñor bota egiten ezta
Mundua dago diru ametsez
Aspaldi jotzen tronpeta.

Beste tokira joan giñan ta
Genduan kafia artu
Umorerikan galdu gaberik
Guztiak giñan alkartu
Bertsotan beti amairik gabe
Gutarrak kemena badu
Bertsozalerik baldin badago
Eztu obia pasatu.

Arratsaldeko lenengo orduan
Atera giñan kotxian
Kamiño danak igarri gabe
Gelditu ziran atzian
Txapelketia Ondarruan zan
Egiteko justizian
Jentez beterik zeguan plaza
Bertsolarien grazian.

Olalde ere an ageri zan
Erraturikan joanik
Goizian goizik Mungiatikan
Gernikara aterarik
Gure Ormaetxe-k kotxia zeukan
Lagunarentzat dubarik
Baiña etxerako uste zuenez
Etzuen izandu planik.

Gernikatikan Ondarruara
Aldatu zan motorrian
Eztakit baiña alde batetik
Zerbait umore txarrian
Bertsozalia benetan da ta
Bestetik oso ederrian
Emazteakin bere etxian
Jarriko zan asarrian.

Ezta izaten segurukua
Jartzia iñoren pentsura
Orregatikan gure laguna
Jun zitzaigun Ondarrura
Ondo dakigu an izan zala
Entzuten oso gustura
Urrengo jua dana utzita
Aurretik zure kontura.

Jan eta edan patxadan egin
Bertsotan ondo gabiltza
Aurkitu degu nola pasatu
Jai egunetako giltza
Astegunez lan nolabait egin
Igan dez kantatu itza
Osasun ona dan bitartian
Eztegu txarra bizitza.

